

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## AMURRIOKO UDALA

**Onestea 2019ko enplegu publikoaren eskaintzaren barruan jasotako Ofizioetako Ofiziala - Lorezaina lanpostuko barne sustapenerako onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda, erreklamaziorik egon ezean hura behin betiko bihurtzea, epaimahai kalifikatzaileak izendatzea eta azterketen datak ezartzea**

Amurrioko Udalak, Alkatetzaren ebazpen bidez (2022/126 Dekretua, 2022ko maiatzaren 4koa), onetsi zuen 2019ko enplegu publikoaren eskaintzaren barruan jasotako Ofizioetako Ofiziala - Lorezaina lanpostuko barne sustapenerako onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda, baita ere zerrenda hori behin betiko bihurtzea, erreklamaziorik egon ezean, epaimahai kalifikatzaileak izendatzea eta azterketen datak ezartzea, ondoko eduki honekin, hitzez hitz:

“2022ko apirilaren 4an amaitu zen eskabideak aurkezteko epea udaleko langile funtzionarioen aurrekontu plantillan eta 2019an onetsitako enplegu publikoaren eskaintzaren barruan dagoen postu huts baten hautaketa-prozesuan parte hartzeko. Hortaz, alkate honek, legez eman zaizkion ahalmenez baliatuz, honako hau:

## XEDATZEN DU

LEHENENGOA. Onestea plaza horretarako onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda, jarraian azaltzen dena:

## OFIZIOETAKO OFIZIALA. LOREZAINA

NANA	ABIZENAK ETA IZENA
***178**	Aldama Hurtado, Almudena
***813**	Corada del Valle, Luis

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko zerrenda bihurtuko da. Erreklamaziorik badago, beste ebazpen baten bidez onetsi edo ezetsiko dira, eta ebazpen hori modu berean argitaratuko da.

Ez da inor ere baztertu lanpostu horretarako.

BIGARRENA. Epaimahaia osatuko duten titularrak eta ordezkioak izendatzea:

## OFIZIOETAKO OFIZIALA-LOREZAINA LANPOSTUKO EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

Epaimahaiburua:

•Titularra: Inés María Valdivielso Martínez.

Ordezkoa: Iñaki Elorriaga Zorroza.

Epaimahaikideak:

•Titularra: Íñigo Mínguez Ojembarrena.

Ordezkoa: Jesús M<sup>a</sup> Urrutia Alday.

•Titularra: Bernardo Villarrazo Prados.

Ordezkoa: Noemí Llorente Diez.

•Titularra: Juan Manuel Moreno Jurado.

Ordezkoa: Marisa Ansorena Axpe.

IVAPek euskara azterketarako izendatutakoak:

•Titularra: Susana Jauregialzo Arregi.

Ordezkoa: Iratxe Etxebarria Arizmendi.

Idazkaria:

•Titularra: Fátima Rojas Sáenz.

Ordezkoa: Eva Palacios Melero.

HIRUGARRENA. Oposizio aldiko lehenengo eta bigarren ariketak batera egiteko eguna deitzea:

POSTUAREN IZENA	LEKUA	EGUNA	ORDUA
Ofizioetako ofiziala. Lorezaina	Amurrioko udaletxea (Juan de Urrutia plaza, z.g. - Amurrio)	16/5/2022	11:30

LAUGARRENA. Ebazpen hau udalaren web orrian eta ALHAOn argitaratzea. Hamar egun baliodun izango dira erreklamazioak aurkezteko, zerrenda horiek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Probak egiten diren egunean oraindik ez badira ebatzi onartuen eta baztertuen zerrendei egindako erreklamazioak, kautelaz egin ahal izango dute azterketa eraginpeko izangaiek”

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Amurrio, 2022ko maiatzaren 4a

*Alkatea*

**JOSE RAMÓN MOLINUEVO LAÑA**